

## **Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako greba egunak jarraipen zabala izan du: %65 ingurukoa**

**Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek oinarrizko aldarrikapenak aintzat hartzen ez badituzte greba eta mobilizazioak indartu beste biderik ez dute izango ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek**

Gizarte Ekimeneko itunpeko ikastetxeetako 9.000 langile inguru zeuden gaurko grebara deituak. 200 ikastetxe baino gehiagotan 130.000 ikasle ingururi ematen diote hezkuntza.

Kolektibo desberdinetan jarripen zabala izan du grebak: administrazio eta zerbitzuetako langileen artean, Haur hezkuntzako lehen zikloko langileetan, Hezkuntza laguntzako espezialistetan eta etapa guztietako zein lanbide Heziketako irakasleetan, alegia. Lan zuzendaritzak greba egun honetarako gehiegizko zerbitzu minimoak ezarri dituen arren, sindikatuek batu ahal izan dituzten datuen arabera, geldialdia %65 ingurukoa izan da, Bizkaian eragin nabarmenagoarekin. Bilboko manifestazioan 5.000 langile inguru batu dira, eta aldarrikapenekin euren atxekimendua agerian utzi dute.

ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek Lan Hitzarmenaren negoziaketak blokeatuta daudela salatu zuten orain hilabete, patronalek edukien gaineko proposamenik ez dutelako egiten.

Aldarrikapen nagusiak lan zamak arintzeko neurrietan, sektore feminizatu eta prekarizatuarentzat hobekuntzetan, KPlaren araberrako soldata igoeretan, lanpostuak mantentzeko neurrietan eta Lanbide Heziketako edukietan oinarritzen dira. Euskara planak, berdintasun planak eta lan osasuna eta bereziki arrisku psikosozialak aboratzeko planak ere jomugan ditugu sindikatuek.

Mobilizazioetara jo aurretik, negoziaketa mahaian ordezkaritza daukaten Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei idatzi bat aurkeztu zioten. Bertan, negoziaketarako sindikatuen borondatea agertu eta edukiz betetako Lan Hitzarmen baten inguruko proposamena mahai gaineratzeko eskatu zieten.

Gaur gaurkoz ez dute patronalen aldetik inolako erantzunik edo berririk izan. Ezta proposamenik jaso ere.

Patronalen inmovilismo eta balizko proposamenik ezaren aurrean, gaurko deitutako grebarekin aurrera egin dute sindikatuek.

Gaurkoan grebak izan duen jarraipena eta manifestazioak izan duen babes ikusita, sindikatuek sektoreko patronalei edukiak izango dituen proposamen bat helarazteko eskaera luzatzen diegu. Horrela izan ezean greba eta mobilizazioak indartu beste biderik ez dute izango.

2023ko apirilaren 25ean



# Lan Hitzarmenaren negoziaketarako sindikatuon aldarrikapen nagusiak

## IRAUPENA

2022-2024 (2021eko soldatak barne).

### LAN ZAMAK ARINTZEKO NEURRIAK

◦ Irakasleak: eskola orduen murrizketa esanguratsua.  
Murrizten diren eskola orduak ordu osagarri bihurtzea eta ordu osagarri horiek lan pertsonalerako izatea.

- Irakasle ez diren langile tituludunak: Irakasleen urteko lanaldi berdina
  - Kolektibo guztietan ordezkapenen erregimena hobetzea

### SEKTORE FEMINIZATU ETA PREKARIONENTZAT HOBEKUNTZAK

- HH Lehen zikloko langileak HH bigarren zikloko langileekiko homologazioan pausu garrantzitsuak
- Hezkuntza Laguntza Espezialistak (EAE) lanaldi osoak bermatzea eta ordu osagarriak gehitzea arreta zuzenekoak murriztuz
- AZP urteko lanaldi murrizketa esanguratsua, lan zamak neurtzeko eta mugatzeko neurriak ezarriz

### SOLDATAK:

- KPlaren bermea
- Aurrez galdutako eros ahalmena berreskuratzen joatea.
- DBH 1 eta DBH 2ko irakasleen soldata parekatzea

### ENPLEGUA. LANPOSTUAK MANTENTZEKO

- Birkokapen prozedurari buruzko erreglamendua Hitzarmenean jasotzea eta betearazteko bermeak ezartzea
  - Birkokapen akordio mugagabea bermatzea

### LANBIDE HEZIKETA

- Lanaldi irregularra arautzea: Asteko ohiko eskola orduak gainditzeko baldintzak negoziatu eta hitzarmenean txertatu:  
Ordu lektibo eta osagarrien proportzioa mantendu beharko da  
Konpentsazioa egon beharko da
- FCTs: 6 ordu astean ikasturte osoan; ez bakarrik praktika garaian
  - Tailerretan bikoizketa arautu
- Lanbide Heziketako lege berriak ekar ditzaken aplikazioa negoziatzea

### BEHIN BEHINEKO KONTRATAZIOA ETA ALDIZKAKO KONTRATAZIO FINKOA

- Lanaldi osoko kontratu mugagabeen nagusitasuna jasotzea
- Aldizkako kontratu finkoen erabilpenik ez dela egongo jasotzea arau orokor bezala.

### LAN OSASUNA

- Behin behineko ez gaitasun osagarria baja-denbora efektibo osoan.
- Arrisku psikosozialak, bai prebentzioan baita identifikatutako gabeziak konpontzeko planak ezarri ikastetxe guztietan, jazarpen-protokolak barne

### EUSKARA PLANAK

- Plantilla osoarentzat, irakasleak ez direnak barne

### BERDINTASUN PLANAK

- Hitzarmeneko zentro guztietan.